



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko uztailaren 4a

85. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Lan-taldea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertu eta eztabaidatzekoa. Osaerari eta eratzeari buruzko arauak (7. or.).

—Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (8. or.).

—Foru lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berreskura dezan Nafarroako ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da neurriak har ditzan Fórum Filatélico, Afinsa Bienes Tangibles eta Arte y Naturaleza Gespart-en inguruko iruzurrak kaltetutako familiei konponbideak eskaintzeko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu du (11. or.).

—Artikoaren etorkizunaren aldeko adierazpen instituzionala. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Kontuen Ganberak prestatu duen “Ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzea eta kanpoan kontratatzea” izeneko txostenaren konklusioen ondotik Osasun Departamentuak hartu beharreko neurriei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegituretako beharren gaineko azterlan bat egiteko asmorik ote duen jakitekoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (15. or.).
- Galdera, Lekunberri-Larraungo ikasleentzako erreferentziako ikastetxea dela eta Arartekoaren gomendioa eta Parlamentuak onetsitako ebazpena betetzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (15. or.).
- Galdera, babesgabetasunean dagoen edo edo nutrizio arazoak dituen adingabe bat atzematen denean jarraitu beharreko protokoloari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (16. or.).
- Galdera, Iruñeko sarreretako seinaleetan errotulazioa ele bitan jartzeko eskumena norena den jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari eman beharreko baimena, “Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa, S.A. (CNAI)” sozietatearen akzioak eskualdatzekoa. Foru Araubideko Batzordeak onetsia (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2014ko ekainaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetuko dela, Erregelamenduko 152. eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2014ko irailaren 22an eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarriak lehen puntuaren dioenez, lege hori Konstituzioaren 149.artikuluaren 1.idatz-zatiko 14. eta 18. puntuetan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritako moduan aplikatuko da Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren azken xedapenetako hirugarrenak dakartzaten berezitasunak aintzat hartuta betiere.

Horrez gain, adierazten du zerbitzuak emateko moduz erabakitzeko eskumena, Toki Araubideko Oinarriari buruzko Legearen 26.2 artikuluan aipatzen dena, Nafarroako Foru Komunitateari dago kiola, kasuan kasuko koordinazio eta tutoretza ahalmenak alde batera utzi gabe.

Beste alde batetik, xedapen gehigarri horren bigarren puntuak ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenen esparruan, eskumenak esleitu ahal dizkie bere lurraldeko udalerriari eta Nafarroako gainerako toki entitateei, eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. artikuluen 3., 4. eta 5. idatz-zatietan adierazitako irizpideak bete beharko dira.

Lege horrek 2013ko abenduaren 31n hartu zuen indarra eta, ikusirik Nafarroako Toki Administrazioa osotara berrantolatzeko foru lege bat eta toki entitateak finantzatzeko sistema bat, lege horrekin bat datorrena, onesteko prozesua auzeratuko dela, beharrezko jotzen da gure toki

araubideko alderdi zehatz batzuk arautzea, haren berezitasuna babes dezaten helburu hauek lortuz:

Lehenengo eta behin, soilik administrazio publikoek, nahitaezko udal zerbitzuak emateko, sortzen dituzten partzuergo entitateei toki entitatearen lege izaera eman nahi zaie, komenigarria eta beharrezkoa delako tokiko zerbitzuak identifikatzea eta haien kudeaketari toki entitateek berezkoa duten araubide juridiko bat ematea, horien barrenean administrazio publiko desberdinak izateak distorsiorik eragin gabe; beste arrazoi bat da entitate horiek bereizi behar direla barrenean irabazimorik gabeko entitate pribatuak dituzten gainerrako partzuergo entitateetatik, bai eta nahitaezkoak ez diren toki intereseko beste zerbitzu batzuk emateko sortutako entitateetatik ere.

Bigarrenik, modu antolatuan desblokeatu nahi dugu administrazio zerbitzuen batasunak sortzeko foru araudian ezarritako legezko traba, biztanle kopuru txikiagoa duten udalerriek tresna egoki bat emateko behar adinako kudeaketa ahalmena izan dezaten eta, halatan, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloko legeetan eskatzen den aurrekontu eta finantza kontrola bermaturik egon dadin.

Horrez gain, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legean ezarritako eskumen araubide berriari dagokionez, gure toki entitateen eskumen araubidea babesteko eta Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautuko dituen foru legearekin bat onetsi beharreko finantzaketa sistema berriak indarra hartu bitarte, beharrezkotzat jotzen da honako aurreikuspen hau ezartzea: lege horrek indarra hartu aurretik udalerriek ondok zehazten diren gaietan berezko izan dituzten eskumenak edo haiek beren gain hartutakoak toki entitateek beraiek betetzen jarraituko dute, une horretara bitarte egin duten bezala. Hauexek dira gaiak: oinarritzko osasun laguntzaren eta osasun arloko ikuskapen zerbitzuen kudeaketan parte-hartzea, gizarte zerbitzuak ematea, eta hezkuntza, haur hezkuntzako lehen zikloko haur eskolak barne.

Garrantzi handikoa da, halaber, aurreikustea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erabakiko duela zerbitzuak emateko modua, Toki Araubideko Oinarri buruzko Legearen 26.2 artikulua aipatzen duena.

Azkenik, lege esleipen bat ezartzen da, Nafarroako hiri hondakinen kudeaketa integrala antolatzeko bidea emanen duen erregulazioa egiteko; izan ere, beharrezkoa da arau esparru bakarra

izatea, Europar Batasunean hondakinen kudeaketaren arloan dauden eskakizunekin bat datorrena, ingurumenaren aldetik garrantzia handia duen zerbitzu publiko baten finantzaketari eustea bermatze aldera. Helburu horrekin bat, eta hondakinen kudeaketarako eredu berria ezarri bitarte, bidezkotzat jotzen da aurreikuspena ezartzea, hiri hondakinen tratamendurako egun ematen den zerbitzuan eragile berririk izan ez dadin.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 3. artikulua 1. idatz-zatia aldatzen da. Hona hemen testu berria:

“1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteak dira:

- a) Administrazio barrutiak.
- b) Kontzejuak.

c) Nafarroako Bardeetako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea eta foru lege honek indarra hartzen duenean herri ondasunen titular edo administratzaile diren gainerrako korporazio tradizionalak.

d) Udalerri bat baino gehiago biltzen dituzten entitateak, Nafarroako Foru Komunitateak foru lege bidez sortuak, eta zerbitzu administratiboen batasunak.

e) Mankomunitateak.

f) Toki partzuergoak.”

Bi. 46. artikulua 3. idatz-zatia aldatzen da. Hona hemen testu berria:

“3. Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautzen dituen foru legeak indarra hartu bitarte, alegia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen denak, Nafarroako udalerriek, administrazio zerbitzuen batasunak euren borondatez sortu nahi badituzte, honako determinazio hauek aurreikusirik izan beharko dituzte estatutuetan:

a) Batasuneko kide diren udalerriek elkarren mugakide izan beharko dute, eta Nafarroako Lurralde Estrategiako azpieskualde berekoak izan edo mugakide den beste batekoak, baina eskualde berean betiere. Batasunaren eraketa instituzionala bestelakoa izateko, Nafarroako Gobernuaren berariazko baimena beharko da.

b) Batasunaren helburu soziala, hau da, administrazio zerbitzuak batera ematea, bere jardun esparruan dauden kontzejuetako behar administratiboetara ere zabalduko da, kasuan kasuko udalerrriaren kargura, kontzejuek berriaz hala adierazten badute.

c) Emandako eskudantzien eskumenak edo udalerriek batasunari eskuordetutakoak erabiliztean, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloan indarra duten legeak errespetatu beharko dira.

Borondatezko batasun horien antolaketa eta funtzionamendua kasuan kasuko estatutueta ezarritakoak zuzenduko ditu, eta, subsidiarioki, mankomunitateetarako ezarritako araubide orokorra aplikatuko zaie.

Baldin eta administrazio zerbitzuetarako batasun bat, 3.1.d) artikuluan aipatzen direnetakoa, sortu gogo duten udal horiek legeaz edo borondatez sortutako batasun batean sartuta baldin badaude edo bertako kide badira, beharrezkoak diren tokiko funtzio publikoko lanpostuei eutsi ahal izateko behintzat, batasun haren esparruak bat etorri beharko du, gutxienez, bertan sartutako udalenerekin, non eta Nafarroako Gobernuak beste zerbaitetarako baimena ematen ez duen, Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautuko dituen foru legeak aurreikusitakoarekin bat.

Nolanahi dela ere, administrazio zerbitzuetarako batasun bat eratzen bada xede horretarako sortu edo eratuta dauden entitateetan sartutako udalerrien artean, entitate horiek desegin egingen dira eta, kasua bada, batasunean sartuko dira une horretan kargu horiek betetzen ari diren funtzionarioak.

Batasun horien toki entitate izaerak aukera ematen du beren gain har dezaten, beren estatutueta ezarritako moduan betiere, borondatez erabakitzen dituzten udal eskudantzien eskumene erabilera”

Hiru. 212. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

1. Toki entitateak izaera desberdinetako administrazio publikoekin elkartu ahal dira, eta bi alde-en intereseko helburuak erdiesteko partzuergoak eratu.

Halaber, partzuergoak ezarri ahalko dituzte irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio edo entitate pribatuekin ere, horiek bilatzen dituzten interes publikoko helburuak toki administrazioaren helburuekin bat baldin badatoz.

2. Partzuergoak borondatezko izaera duten elkarteak dira. Berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko ahalmen osoa duten entitate publikotzat joko dira.

3. Beren eskumeneko zerbitzuak toki araubideko legeetan aurreikusirik dauden bideak erabiliz eman ahalko dituzte.

4. Foru lege honen 3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, toki entitatearen izaera izanen dute izaera desberdineko administrazio publikoek, soilik udal eskumeneko nahitaezko zerbitzuak emateko, sortzen dituzten toki partzuergoek, zerbitzu horien konplexutasun teknikoa eta tamaina ekonomikoa direla-eta beharrezkoak direnean Nafarroako Lurralde Estrategiaren eremuak baino handiagoak diren esparruak, edo legeaz hala ezartzen denean.

5. Aurreko puntuan aipatzen diren partzuergo entitateak antolatu eta jarduteko araubidea Nafarroako toki entitateei aplikatu beharreko legeetan aurreikusitakoari lotuko zaio”

Lehen xedapen gehigarria. Osasun, gizarte zerbitzu eta hezkuntza arloetako udal eskumeneak.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du toki administrazioaren arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikuluan aitortua eta Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian berretsi eta zehaztua; horrenbestez, eskumen horretaz baliatuta, lege horrek indarra hartu baino lehen udalerriek berezko zituzten edo bere gain hartutako eskumeneak, ondotik zehazten diren gaietakoak eta aipatutako legearen lehen, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan aipatzen direnak, orain arte bezala erabiliko dituzte toki entitateek, Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua arautzen dituen foru legeak indarra hartu bitarte, alegia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den foru legeak. Aipatutako gaiak hauexek dira: oinarritzko osasun laguntzaren eta osasun arloko ikuskapen zerbitzuen kudeaketan parte-hartzea, gizarte zerbitzuak ematea eta gizarte sustapen eta gizarteratzekoak, bai eta lege horren hamabosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren hezkuntza arlokoak eta haur hezkuntzako lehen zikloko haur eskolen gainekoak ere.

Bigarren xedapen gehigarria. 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan zerbitzu jakin batzuk emateko moduz erabakitzeko eskumena.

Zerbitzuak emateko moduz erabakitzeko eskumena, Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legearen 26.2 artikulua aipatzen duena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izanen du.

Hirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako hiri hondakinen kudeaketa integrala antolatzeke lege ekimena.

2016ko ekainaren 30a baino lehen, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, Nafarroako hiri hondakinen kudeaketa integrala arautu eta antolatuko duena; bertan, kudeaketarako ereduak zehaztuko da, Foru

Komunitateko lurralde eta populazio ezaugarriekin bat datorrena eta ingurumenaren arloan indarra duen araudia betetzen duena, eta, horrekin batera, finantzaketarako esparru bat ezarriko duena, zerbitzuari finantzaketaren aldetik eustea bermatuz eta lurraldeen arteko berdintasun eta elkartasun printzipioak errespetatuz.

Lege erregulazio horrek indarra hartu arte, hiri hondakinen tratamendurako zerbitzua foru lege hau argitaratzen den unean ardura hori bere gain hartuta duten entitateek jarraituko dute ematen.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Lan-taldea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena aztertu eta eztabaidatzekoa.

OSAERARI ETA ERATZEARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2014ko ekainaren 19an, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak erabaki zuen, Erregelamenduko 55.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, lan-talde bat eratzea aztertu eta eztabaidatzeko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion hartu beharreko erabakiak har zitzan lan-talde horren osaerari eta eratzeari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean hasi ahal izan dadin, ondokoa ERABAKI DA:

1. Lan-taldea osatuko dute parlamentu-talde bakoitzeko kide banak.

2. Epe bat ematea, 2014ko irailaren 5eko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde bakoitzak

aipatu lan-talderako ordezkaria izenda dezan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko taldeko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratu eta lanean hasiko den erabakiko du.

4. Azterlana egiteko epea bukatuko da lan-taldea eratu eta bi hilabetera.

Behin txostena eginda, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei helaraziko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra parlamentu-taldeek foru lege proposamen hau aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarrek prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute: "Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea aipatu Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako

ZIOEN AZALPENEA

Aldatu nahi den legearen 15. artikulua, non hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoagatik Nafarroako udalei eman beharreko konpentsazioa jasotzen baita, zaila da interpretatzen Nafarroako Sinboloei buruzko Legea ez betetzeari dagokionez, eta, beraz, zehaztu beharra dago ez betetzeaz ari denean zertaz ari den.

Artikulu bakarra.

Aldatu egiten da Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen 15 g) artikuluko 1. idatz-zatia.

Lerrokada berri bat gehitzen da 15. artikuluko g) letraren 1. idatz-zatiko bigarren lerrokaden ostean –"1. Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen ez-betetzea"–. Hona testua:

"Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hurrengoak hartuko dira Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen ez-betetzat:

– Udaletxeetako kanpoaldean ez paratzea legez aurreikusitako banderak.

– Beste herrialde edo autonomia erkidego bazu-tuetako banderak paratzea udalaren ezein erai-kin edo instalaziotan, salbu eta Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeko 8.3 artikuluan ezarritako kasuetan".

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek foru lege proposamen hau aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute: "Foru lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aipatu Foru Lege proposamena.
2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.
3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko delata.
4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako

ZIOEN AZALPENEA

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen 15 g) artikulua egungo testuaren arabera, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoagatik udalei konpentsazio gisa dagozkien zenbatekoak ken edo atxiki dakizkieke, Sinboloei buruzko Foru Legearen eta Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Foru Legearen ez-betetze kasuetan.

Kompentsazio horiek, ordea, Parte Hartzeko Funtsaren parte eta, hortaz, toki entitateen baliabide bereki dira, Ogasunei buruzko Foru Legeak aitortzen duen bezala, eta toki entitate asko eta asko gerta litezke kalteturik. Hori dela-eta, letra hori kentzea komeni da; izan ere, toki entitateek funts horretatik jaso ditzaketen zenbatekoen minorazio handia ekar lezake horren aplikazioak, eta toki entitateek zenbateko horiek jasotzeko eskubi-dea dute.

Bestalde, hor da Nafarroako Kontseiluak 2013ko apirilaren 9ko irizpenean honi buruz esan zutena ere.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen honako aldaketa hau proposatzen dugu.

Artikulu bakarra. 15. artikuluko g) letrako 1. idatz-zatia –Sinboloei buruzko Foru Legeari buruzkoa– eta 2.a –Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Foru Legeari buruzkoa– kentzea.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berreskura dezan Nafarroako ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baia berreskura dezan Nafarroako ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Kontuen Ganberak ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzeari eta kanpoan kontratatzeari buruz egindako fiskalizazio txostenak egiaztatu du Ospitaleguneko sukaldeak pribatizatu izanak eragin duela zerbitzua garestiagoa izatea funts publikoentzat, eta kalitate eskasagokoa.

Txosten horrek frogatu du Ospitaleguneko sukaldeen pribatizazio-prozesu osoaren eragin-kortasunik eza eta desegokitasuna izan dela, eta interes publikoaren ikuspegitik ondorio oso kaltegarriak baizik ez dituela ekarri: langileak kaleratuta, desordena elikadura-zerbitzuan, zailtasun gehigarriak prozesu osoan inplikaturako osasun arloko langileentzat, eta elikadura okerragoa eta garestiagoa.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen titulartasuna eta kudeaketa publikoa berreskura ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilari Marta Vera Janín andreaken dimisioa exijitzen du.

Iruñean, 2014ko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan Fórum Filatélico, Afinsa Bienes Tangibles eta Arte y Naturaleza Gespart-en inguruko iruzurrak kaltetutako familiei konponbideak eskaintzeko.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita neurriak har ditzan Fórum Filatélico, Afinsa Bienes Tangibles eta Arte y Naturaleza Gespart-en inguruko iruzurrak kaltetutako familiei konponbideak eskaintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

2006ko maiatzaren 9an, Fórum Filatélico, S.A., Afinsa Bienes Tangibles, S.A. eta Arte y Naturaleza Gespart, S.L. enpresak judizialki interbenituak izan ziren, maula egin izanaren akusaziopean.

Konpainiei egotzi zitzaizen piramide-eskema baten babesean operatu izana, eta argudioa izan zen ez zeukatela zigilurik, edo zeuzkatenak falsuak zirela edo neurritz kanpo baloraturik zeudela. Esku-hartze honen ondoren, sozietateek hartzekodunen konkurtsoan sartu ziren.

Sozietate horien esku-hartzeak eragin zuzena izan zuen 477.351 familiarengan –gehienak, aurreztaile txikiak–, operazioan 4.800 milioi euro baino gehiago galdu zituztenak.

Egora honi erantzuteko, Gobernuak 500 milioi euroko kreditu-lerro bat gaitu zuen 2007an, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez, "ICO Afectados

Fórum Filatélico/Afinsa 2007" izenekoa. Kreditu horien helburua zen ukituei laguntzea beren estutasun ekonomiko berezia gainditzeko, behin-behineko eta prozesu judiziala bukatu bitarte."

Kaltetuak, halere, ikusten ari dira prozesu judizial hori denboran luzatzen ari dela; hori dela-eta, ezin izan dituzte garaiz itzuli Kreditu Ofizialeko Institutuaren lerro horretako kredituak. Hartara, Gobernuak 2012ko abenduan erabaki zuen bi urtez luzatzea hasiera batez bost urterako emandako kreditu-lerroa, baina interesak kobratuta.

Gaurko egunez, eskandalo hori ezagutu zenetik ia zazpi urte iragan direnean, eta arazoak oihartzun sozial eta ekonomiko handia izan arren, oraindik ez da kontsumitzaile askok bizi duten egoerari erantzuteko neurri berezirik hartu (oraindik ere ikerketa penalaren xede diren jarduketan biktima izan ziren). Abian diren prozedura judizialek luze joko dute itxura batean; horrenbestez, arazoari erantzun eraginkor bat eman behar zaio lehenbailehen.

Ukitutako kontsumitzaileen elkarteek honako konponbide hau planteatu dute: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez, erosketa-eskaintza bat egitea kontsumitzaile eta erabiltzaile izaera dutenei, Fórum Filatélico, S.A., Afinsa Bienes Tangibles, S.A. eta Arte y Naturaleza Gespart, S.L. sozietateetan abian den konkurtso-prozeduretan kreditu arrunt gisa aitorturiko zenbatekoen balio izendatuaren ehuneko jakin baten gainekoa.

Formula hori ez da berria, beste eskandalo handi batean ere aplikatu baitzen; hain zuzen ere, Promoción Social de Viviendas (PSV) kooperatibaren kasuan. Gainera, ez luke zertan ekarri defizit publikoa igotzea; izan ere, Kreditu Ofizialeko Institutuak konkurtso-prozeduretako aktibo bat erosiko luke, erosten diren aktiboen balio izendatua baino gutxiago egiten duen gastu erreal bat dakarrena.

Zenbait autonomia erkidegotako parlamentuek (Galizia, Valentzia, Aragoi...) gisa horretako erabakiak onetsi dituzte jada, eta Gobernua premiatu dute egoera horri alaitz azkarren konponbide bat eman diezaion. Halere, oraindik ere, kasu hau behin betikoz konpontzetik oro urrun gaude.

Nafarroan, 7.000 familia baino gehiago gelditu ziren piramide-egiturako enpresa-multzo horren gatibu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, konponbide bat emate aldera Fórum Filaté-

lico, Afinsa Bienes Tangibles eta Arte y Naturaleza Gespart sozietateen maulak kaltetutako familiei, eta azter dezan kaltetutakoen elkarteek planteatutako proposamena –Kreditu Ofizialeko Institutuak zorra erostea– bidezkoa ote den eta, kasua bada, aplika dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 26an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Artikoaren etorkizunaren aldeko adierazpen instituzionala.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentua ondoko neurrien alde dago:

1. Artikoko herri indigenen eskubideak aitortu eta errespetatuz, dei egiten diegu Artikoko estatuei azkartasunez eta osorik ezar dezaten Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Deklarazioa.

2. Nazioarteko zuzenbidea eta Artikoko estatuen subiranotasuna gobernantza egonkor baterako funtsezko oinarriak direla onartuta, Itsasoko Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioak gobernantza horretan duen eginkizun nagusia aitortzen dugu (aldeek dituzten eskubideak nahiz betebeharrak jasotzen dira Konbentzioan).

3. Konbentzituta gaudenez Nazioarteko erkidegoak eta mundu osoko gazteek Artikoaren etorkizunean interes legitimoa dutela, dei egiten diegu Artikoko estatuei aukera berriak sor ditzaten nazioarteko eta belaunaldiarteko lankidetzarako, erregiorako etorkizun iraungarri bat sortzearen.

4. Artikoan nahiz mundu osoan klima-aldaketa izaten ari den inpaktu suntsitzailearengatik asaldatuta gauden une honetan, negutegi-efektuko gasen isurketa gutxitzeko ahaleginak premiaz berritzea exijitzen dugu, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren itzalean.

5. Artikoko ekosistema bakarra eta baliotsua dela uste dugunez, estatuei dei egiten diegu beren betebeharrei aurre egin diezaieten, aniztasun biologikoari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren eta Itsasoko Zuzenbideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren itzalean, Ozeano Artikoan itsas

eremu babestuen eta itsas erreserben sare bat sortuz.

6. Antartikoko Ituna sortzea ahalbidetu zuen bake eta lankidetzaren espiritua gogoan, Artikoko estatuek nazioarteko erkidegoarekin lan egin dezaten proposatzen dugu, Ipar Poloaren inguruko nazioarteko uren eremua santutegi global deklaratzeko.

7. Ozeanoaren tenperaturaren igoeraren ondorioz Artikoko arrantzalekuak gero eta presio handiagoaren mende egonen direla iritzita, Artikoko estatuei dei egiten diegu, nazioarteko erkidegoarekin lankidetzan, arrantza-antolamenduko araubide bat ezar dezaten, ezinbesteko baliabide hori babesteko duena, eta moratoria bat ezar dezaten orain arte ustiatu ez diren Artikoko uretako industria-arrantzari dagokionez.

8. Artikoko ingurumena petrolio-isurketa baten aurrean bereziki ahula dela iritzita, Artikoko baldintzak direla-eta isurketa bat garbitzeko ahalmena segurki oso mugatuta egonen dela iritzita, eta Artikoko petrolio-baliabideen ustiapenak klima-aldaketaren arriskuak nabarmen areagotuko dituela iritzita, dei egiten diegu Artikoko estatuei prekauzio-arau komunak gara eta aplika ditzaten erregioan petrolio erauzteko, itsas-ingurunetako erauzketa debekatzea barne, horietan ez baita posible behar bezala erantzutea isurketa bat gertatuz gero.

9. Klima-aldaketaren krisiak klima-kutsadurako iturri guztiei aurre egitera behartzen gaituela onartuta, eta ikatz beltzak Artikoan duen inpaktu berrazkoa aitortuta, Artikoko estatuak eta jarduteko moduan dauden herrialdeak premiatzen ditugu konpromisoa har dezaten ikatz beltzaren iturri guztien gaineko kontrol estuak egiteko eta arazo

horri aurre egiteko laguntza behar duten garapen-
bideko herrialdeei laguntza emateko.

10. Artikoa nabigatzeko aukerak areagotzen
ari direla eta, aukera berri horiekin batera,
ingurumenarentzako arriskuak areagotzen direla
aitortuta, nazioarteko erkidegoa premiatzen dugu

ados jar dadin, Nazioarteko Itsas Erakundearen
babespean, Kode Polarraren ingurumenari buruz-
ko kapituluari dagokionez, urgentziazko auzia
baita”.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kontuen Ganberak prestatu duen “Ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzea eta kanpoan kontratatzea” izeneko txostenaren konklusioen ondotik Osasun Departamentuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Kontuen Ganberak prestatu duen “Ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzea eta kanpoan kontratatzea” izeneko txostenaren konklusioen ondotik Osasun Departamentuak hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuen Ganberak ospitaleetako elikadura-zerbitzua bateratzeari eta kanpoan kontratatzeari buruz egindako fiskalizazio txostenak auzitan jarri du, inolako duda izpirik gabe, Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen pribatizazioa.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Osasun Departamentuak zer neurri hartuko ditu txosten horren konklusioak ikusita? Ba al du asmorik Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen eta elikaduraren kudeaketa berriro ere publiko bihurtzeko?

Iruñean, 2014ko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegituretako beharren gaineko azterlan bat egiteko asmorik ote duen jakitekoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-azpiegituretako beharren gaineko azterlan bat egiteko asmorik ote duen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Herrikoa eta Sortzen federazioek emandako informazioa ikusita, Departamentuak ba al du hezkuntza-azpiegituretako beharren gaineko azterlan bat egiteko asmorik? Zeintzuk dira arlo horretako lehentasunak? Noiz egingen die aurre?

Iruñean, 2014ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Lekunberri-Larraungo ikasleentzako erreferentziako ikastetxea dela eta Arartekoaren gomendioa eta Parlamentuak onetsitako ebazpena betetzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Lekunberri-Larraungo ikasleentzako erreferentziako ikastetxea dela eta Arartekoaren gomendioa eta Parlamentuak onetsitako ebazpena betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak ba al du asmorik Lekunberri-Larraungo ikasleentzako erreferentziako ikastetxeari buruz Arartekoaren gomendioa (Q14/486/E espedientea) onartzeko eta, hala, Parlamentuak onetsitako ebazpena betetzeko?

Iruñean, 2014ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, babesgabetasunean dagoen edo edo nutrizio arazoak dituen adingabe bat atzematen denean jarraitu beharreko protokoloari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, babesgabetasunean dagoen edo edo nutrizio arazoak dituen adingabe bat atzematen denean jarraitu beharreko protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuako Gizarte Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

- Zer protokolo baliatzen da, babesgabetasunean dagoen edo nutrizio arazoak dituen adingabe bat ikastetxe batean, osasun etxe batean edo gizarte zerbitzu batean atzematen denean bere familia-ingurunerari lagundu ahal izateko?

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Iruñeko sarreretako seinaleetan errotulazioa ele bitan jartzeko eskumena norena den jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Iruñeko sarreretako seinaleetan errotulazioa ele bitan jartzeko eskumena norena den jakitekoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 30eko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Iruñeko sarreretako seinaleetan errotulazioa ele bitan jartzeko eskumena norena den jakiteko (8-14/PES-00090).

Hona Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

“1. Noren eskumeneak dira Iruñeko hiri-sarreretan ‘Pamplona’ agertzen duten panelak?”

2. Iruñeko ordenantzaren arabera, hizkuntza paisaian bi hizkuntzek maila berean egon beharko lukete. Nori dagokio panelak elebidun izatea bermatzea?”

Lehendabiziko galderari Sustapen Departamentuak erantzunen dio.

Bigarren galderari dagokionez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, udalen eskumena da udal ordenantzak onestea, beren eskumen esparruan erregelamenduzko ahalmena baliatze aldera toki entitatetik sortutako xedapen orokorrak baitira.

Udalaren betebeharrak nagusia da udalak, bere arautze-ahalmena baliatuz, bere buruari emandako arauak betetzea. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 333.1 artikuluan xedatzen denaren arabera, arau horiek urratzen dituzten egintzak edo akordioak aurkaratu egin daitezke toki entitatearen beraren aitzinean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aitzinean edo Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aitzinean.

Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 341. artikulua eta hurrengoek aurkaratzeko ahalmena ematen diote Foru Komunitateko Administrazioari, baina ahalmen hori soilik balia daiteke ordenantzak indarreko legediaren arabera ote diren argitzeko, ez ordea araua bete ote den argitzeko, hori Toki Administrazioaren autonomia-printzipioaren aurkako atentatu bat izanen litzatekeelako. Printzipio hori Espainiako Konstituzioaren 137. artikulua jasotzen du, salbu eta legez kanpoko ordenantza baten zeharkako inpublizazio kasuetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 22an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Sustapeneko kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakitekoa Iruñeko sarreretako seinaleetan errokulazioa ele bitan jartzeko eskumena norena den eta Nafarroako hiriburu ordenantzaren arabera informazio-panelak elebidunak izatea nork bermatu behar duen (PES-00090). Hona Sustapen Departamentuaren erantzuna:

Parlamentu-galdera, ustez, hiri-hasiera eta -amaierako panelei buruzkoa da -panel horiek Iruñeko udal-dermion sartzeko errepedeetako bidebazerretan daude-, bai eta hiriaren aldirietako sareko beste errepede batzuetako bidegurutzeetan dauden aurreabisuko gezi eta paneletako orientazio-seinaleei buruzkoa ere.

Nafarroako Errepedeen Sareko seinaleak Sustapen Departamentuaren ardura dira (Nafarroako Errepedei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea). Errepedeetako seinaleak errokulatzeari

dagokionez, departamentu hau lotu ohi zaio Nafarroako Errepedeen Sareko seinaleak gaztelaniaz eta euskaraz errokulatzeari buruz Gobernuak 2006ko irailaren 25ean onetsitako akordioan ezarritakoari, ezen ez errepedeek zeharkatzen dituzten toki entitateetako udal ordenantzek araututakoari, horrek uniformetasun-ez nabarmena eragin bailezake.

Gainera, hiri-hasiera eta -amaierako panelak eta hiriaren aldirietako sareko beste errepede batzuetako bidegurutzeetan dauden aurreabisuko gezi eta panelak eremu mistoan daude, salbu eta N-135 errepedeko hasierako zatiko bidegurutzeak, eremu euskalduna bere udal dermioko mugatik oso gertu hasten baita.

Edozein kasutan, Gobernuren aipatu akordioan ezarritakoarekin bat etorritik, hiri-hasiera eta -amaierako seinaleak nahiz orientazio-seinaleak euskaraz eta gaztelaniaz paratu edo ordeztu izan dira 2006ko irailetik hasita: "Pamplona / Iruña". Gobernuaren akordio horrek orobat ezartzen du instrukzioa aplikatuko dela kontserbazio, mantentze edo berritze arrazoiengatik seinalea aldatzen denean, akordioko irizpideak betetzen ez dituzten eta lehendik jada paraturik dauden seinaleen kasuan.

Hortaz, galderaren testuinguruan egoera ezberdinak aurki ditzakegu:

- Sarbideetan dauden hiri-hasiera eta -amaierako panelak "Pamplona" testuarekin soilik errokulatuta daude 2000n egindako jarduketako monografiko batean paratu zirelako. Ele bitan jarriko dira kontserbazio arrazoiengatik panel horiek aldatu beharra dagoenean.

- Aldirietako bidegurutzeetan eta lotuneetan dauden gezi eta orientazio-panelak ele bitan daude -Pamplona/Iruña-, baldin eta 2006ko iraila baino geroago jarri baziren edo lehendik zegoena berritu bazen.

- Aldirietako bidegurutzeetan eta lotuneetan dauden gezi eta orientazio-panelak gaztelaniaz soilik daude -Pamplona-, baldin eta 2006ko iraila baino lehenago jarri baziren eta harrezkero berritu ez badira. Ele bitan jarriko dira kontserbazio arrazoiengatik panel horiek aldatu beharra dagoenean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 16an.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari eman beharreko baimena,
“Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa, S.A. (CNAI)”
sozietatearen akzioak eskualdatzekoa.**

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak, 2014ko ekainaren 24an egindak bileran, baimena eman dio Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari “Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa, S.A. (CNAI)” sozietatearen akzioak eskualdatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut erabaki hau argitara dadin.

Iruñean, 2014ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

